

Bezeroak gure eskaintzagaratik zenbat edo nola ordaintzeko prest dagoen jakitea garrantzitsua da gure sarrerak finkatzeko.

Gure enpresa ondasun eta zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa denez, hainbat irabazi iturri izango ditugu, eta ordainketa errepikarien bidezko sarrerak izango ditugu.

Apunteen salmenta eta online bidezko klaseen eskaintza izango dugu. Apunteei dagokienez, bolumenaren arabera prezioa izango dute, une bakoitzean gero eta apunte gehiago erosi nahi izanez gero, orduan eta merkeagoa izango da, baina apunteak bakarka erostean eta asko erostean ez da adina deskontu ezarriko. Aldiz, online bidezko klaseen kasuan, negoziazioaren arabera izango da, hau da, ikasle zein irakasleek adostuko dute klaseari zein prezio jarriko zaion, beti ere, ikasleak kopuru hori ordaintzeko ahalmena badu eta irakasleari errentagarria ateratzen bazaio. Klase hasi aurretik, ikasleak eta irakasleak elkarrizketa bat hasiko dute, eta hartan erabakiko dute zer balio duen klaseak.